



**UDALA ERATZEKO 2019KO
EKAINAREN 15EKO BILKURAREN
AKTA.**

Murgian, Zuiako Udaletzeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hemeretziko ekainaren 15ean, goizeko hamarrak direnean, 2019ko maiatzaren 26an izandako azken Tokiko Hauteskundeetan zinegotzi aukeratu eta ondoren zerrendatzen diren pertsonak bildu dira, baina alde zurretik euren egiaztagutunak aurkeztu, euren nortasuna egiaztatuz eta bateraezintasuna eragin dezaketen kausen, jardueren, ondare-ondasunen eta elkarteetan parte hartzearen aitortzen aurkezpena justifikatu dute, horiek Korporazioko kideen Interesen erregistroetan inskribatu eta Udala eratze bilkura egitea aldera, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. Artikuluetan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartu zuen Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiko 37.1.ean xedatutakoa betez.

Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**BERTARATU DIREN
ZINEGOTZIAK:**

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)

**ACTA DE LA SESION
CONSTITUTIVA DEL
AYUNTAMIENTO CELEBRADA EL
DÍA 15 DE JUNIO DE 2019.**

En Murgia, en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Zuia, siendo las diez horas del día quince de junio de dos mil diecinueve, se reúnen las personas electas como Concejales en las últimas Elecciones Locales celebradas el día 26 de mayo de 2019 que a continuación se relacionan, quienes previamente han presentado sus credenciales, acreditado su personalidad y justificado la presentación de las oportunas declaraciones de causas de incompatibilidad, actividades, bienes patrimoniales y de participación en sociedades, a efecto de su inscripción en los registros de Intereses de los miembros de la Corporación, al objeto de celebrar la sesión de constitución del Ayuntamiento, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 195 y 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General y 37.1 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por el Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre.

Actúa como Secretaria la de la Corporación D^a Susana Zubiaur Zorrilla.

CONCEJALES ASISTENTES:

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
DOÑA INMA ELORZA VERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)



ITZIAR IRCIO VEA-MURGIA AND.
(ZUIA BAI)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN.
(ZUIA BAI)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (ZUIA
BAI)
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA JN.
(ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN.
(PP)

DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGIA
(ZUIA BAI)
DON JUAN CARLOS ALONSO
MORAZA (ZUIA BAI)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA
BAI)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA
(ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ
(PP)

Bilkura egiteko legezko kopuru nahikoa dagoela egiaztatuta, hautatutako guztiak bertan baitira, Bilkura irekitzat eman eta udal idazkariak Udaltzeta berriaren eraketa eta alkatearen hautaketa arautzen dituzten lege-arauak irakurri ditu, hots, Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 15eko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. artikulua.

Comprobado que existe número legal suficiente para celebrar la Sesión porque todas las personas electas asisten, se declara abierta la Sesión y por parte de la Secretaria municipal se da lectura a los preceptos legales reguladores de la constitución de la nueva Corporación así como de la elección del Alcalde: artículos 195 y 196 de la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio del Régimen Electoral General.

UDALBATZA ERATZEA

Ondoren, **Adin Mahaia** eratu da, eta adin handi eta txikieneko hautetsiek osatu dute, hots, Luis M^a Sautu Apellániz eta Unai Gutiérrez Urkiza jaunek. Sautu jaunak presidente-lanak egin ditu eta idazkari-lanak, ordea, Susana Zubiaur Zorrilla andreak, Udaltzeta idazkari den heinean.

Adin Mahaia eratu ondoren, idazkariak azaldu du, Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiko 36.2. artikuluan xedatutakoa betez, hautetsien eskura dagoela kontaktaren aktari buruzko dokumentazioa eta eskudirutan dauden zenbatekoen eta Udaltzeta berezko baloreen (udalaren kutxa eta banketxeetan gordetakoak) ziurtagiriak, zein Udaltzeta ondarearen inbentarioari buruzko dokumentazioa.

CONSTITUCION DE LA CORPORACION

A continuación se constituye la **Mesa de Edad**, integrada por las personas electas de mayor y menor edad, D. Luis M^a Sautu Apellániz y D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando como Presidente de la misma el Sr. Sautu y como Secretaria la que lo es de la Corporación D^a Susana Zubiaur Zorrilla.

Constituida la Mesa de Edad, la Secretario da cuenta que conforme a lo dispuesto en el artículo 36.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, está a disposición del personal electo la documentación referente al acta de arqueo y los justificantes de las existencias en metálico y valores propios de la Corporación, depositados en la caja municipal y entidades bancarias, así como la documentación relativa al inventario del patrimonio de la Corporación.



Mahaiak hautetsiek aurkeztutako egiaztagutunak eta horien nortasunaren ziurtapena egiaztatu ditu, Vitoria-Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak egindako ziurtapenaren arabera, eta ontzat eman ditu.

Jarraian, idazkariak azaldu du beren karguez jabetzeko unean eta izaera osoa bereganatu ahal izateko, hautetsiek Konstituzioa onartzen dutela zin edo promes egin beharko dutela; horretarako, mahaiko kideek, aurrena Gutiérrez jaunak, euskaraz, eta ondoren presidentek, gaztelaniaz, zin edo promes egiteko ezarritako eredu irakurri dute. EREDU HORI 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuan aurreikusita dago eta ondorengoa da:

“Zuen kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzue zinegotzi karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzuela?”

“¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?”

Galdera horri honela erantzun diote bertaratutakoek:

Inma Elorza Bergara andreak: Euskal Errepublika lortu arte, legeak hala behartuta, agintzen dut

Agustin Otsoa Eribeko Landa jaunak: Euskal Errepublika lortu arte, legeak hala behartuta, agintzen dut.

Itziar Mendia Celaa andreak: sí, juro por imperativo legal.

La Mesa comprueba las credenciales presentadas por las personas electas y la acreditación de la personalidad de las mismas de acuerdo con la certificación emitida por la Junta Electoral de Zona de Vitoria-Gasteiz, considerándolas válidas.

Seguidamente la Secretaria manifiesta que en el momento de tomar posesión y para adquirir la plena condición de sus cargos, quienes han resultado elegidas deberán jurar o prometer acatamiento a la Constitución; a tal efecto, los miembros de la mesa, en primer lugar el Sr. Gutiérrez en euskera y posteriormente el Presidente en castellano, dan lectura de la fórmula del juramento o promesa establecida, prevista en el Real Decreto de 5 de Abril de 1979 que es como sigue;

“¿Zuen kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzue zinegotzi karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzuela?”

“¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?”

A la citada pregunta respondieron las asistentes de la siguiente manera:

D^a. Inma Elorza Bergara: Euskal Errepublika lortu arte, legeak hala behartuta, agintzen dut

D. Agustin Otsoa Eribeko Landa: Euskal Errepublika lortu arte, legeak hala behartuta, agintzen dut.

D^a Itziar Mendia Celaa: sí, juro por imperativo legal.



Alaitz Tresserras Angulo andreak:
bai, promesa egin dut legeak hala aginduta

Nerea Idígoras Ladaga andreak: bai,
promesa egin dut legeak hala aginduta

Itziar Ircio Veá-Murgia andreak: sí,
prometo por imperativo legal.

Juan Carlos Alonso Moraza jaunak:
sí, prometo

Conchi López López andreak: sí,
prometo por imperativo legal

Andrés Lafuente Otxoa jaunak: sí,
prometo por imperativo legal

Luis M^a Sautu Apellániz jaunak: si
juro

Unai Gutiérrez Urkiza jaunak: sí,
prometo por imperativo legal

Kargua agindu edo zin egiteko
ekitaldia amaitutakoan, Zuiako Udalaren
Udalbatza eratutzat jo du Adin Mahaiak.

ALKATEA AUKERATZEA

Ondoren, alkatea hautatu da,
Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko
Lege Organikoaren 196. artikuluan
xedatutakoa betez.

Horretarako, idazkariak ohartarazi
du hautagaitzat jotzen direla dagozkien
hauteskunde-zerrendetan lehen postuan
daudenak, hautagaitzaren batek
Alkatetzarako hautagaia aurkezteari uko
egiten diola adierazten duenean izan ezik,
eta ukorik izan ez denez, ohiko bozketa egin
da eskua altxatuta.

Presidenteak hauteskundeetan
jasotako botoen goranzko hurrenkeran
izendatu ditu hautagaitzen buru diren
persona guztiak, eta bozketaren emaitza
ondorengo izan da:

PPtik: Luis M^a Sautu Apellániz jn.: aldeko
boto 1 (PPko zinegotzia)

D^a Alaitz Tresserras Angulo: bai,
promesa egin dut legeak hala aginduta

D^a Nerea Idígoras Ladaga: bai,
promesa egin dut legeak hala aginduta

D^a Itziar Ircio Veá-Murgia: sí,
prometo por imperativo legal

D. Juan Carlos Alonso Moraza: sí,
prometo

D^a Conchi López López: sí, prometo
por imperativo legal

D. Andrés Lafuente Otxoa: sí,
prometo por imperativo legal

D. Luis M^a Sautu Apellániz: si juro

D. Unai Gutiérrez Urkiza: sí,
prometo por imperativo legal

Una vez finalizado el acto de
promesa/juramento del cargo, la Mesa de
Edad declara constituida la Corporación del
Ayuntamiento de Zuia.

ELECCION DE ALCALDE

A continuación, se procede a la
elección de Alcalde, de conformidad con lo
dispuesto en el artículo 196 de la Ley
Orgánica del Régimen Electoral General.

A tal efecto la Secretaria advierte
que se entienden como personas candidatas
todas quienes encabezan sus
correspondientes listas electorales, salvo
que alguna candidatura declare que
renuncia a presentar candidata a la elección
de Alcaldía, y no habiendo renuncia alguna,
se procede mediante votación ordinaria a
mano alzada.

El Presidente nombra a cada una de
las personas que encabeza las candidaturas,
por orden creciente de los votos obtenidos
en las elecciones, siendo el resultado de la
votación el siguiente:

Por el PP: D. Luis María Sautu Apellániz: 1
voto favorable (Concejal PP)



ZUIA BAItik : Itziar Ircio Vea-Murgia and.: aldeko 4 boto (Zuia Baiko zinegotzia)

EH Bildutik: Unai Gutiérrez Urkiza jn.: aldeko 6 boto (EH Bilduko zinegotzia)

Ondorioz, eta UNAI GUTIERREZ URKIZA jaunak, EH Bilduko hautagaiak, gehiengo osoa lortu duenez, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 196.b artikuluan xedatutakoa betez, Mahaiak Zuiako udaleko alkate hautetsi izendatu du Mahaiak.

Jarraian, alkate karguari promes edo zina hartu diote, eta bai promesa egin dut legeak hala aginduta erantzun du. Une horretatik aurrera bera aritu da bilkurako presidente-lanetan eta Adin Mahaia desegin egin da.

Segidan, hitz batzuk zuzendu dizkie Gutiérrez jaunak bertaratutakoei, eta ezer baino lehen eskerrak eman dizkie bertaratutako guztiei eta oro har bertan diren guztiei; jarraian, hautetsiak zoriondu ditu, eta bereziki Udalbatzan berriak diren lauak. Eskerrak eman dizkie EH Bilduk gobernatzea ahalbidetu duten guztiei. EH Bilduk aurreko legealdian bezala jarraituko duela esan du, hau da, talde eta alderdi guztien adostasuna eta herritarren parte-hartzea bilatuz, eta udala horiengandik ahalik eta hurbilen egoten saiatuz.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 10:30ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Por ZUIA BAI: D^a Itziar Ircio Vea-Murgia: 4 votos favorables (Concejales Zuia Bai)

Por EH Bildu: D. Unai Gutiérrez Urkiza: 6 votos favorables (Concejales EH Bildu)

En consecuencia y habiendo obtenido el candidato de EH Bildu **D. UNAI GUTIÉRREZ URKIZA** mayoría absoluta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 196.b) de Ley Orgánica del Régimen Electoral General, la Mesa le declara Alcalde electo del Ayuntamiento de Zuia.

Seguidamente se procedió a tomarle juramento/promesa de su cargo como Alcalde, contestando sí prometo por imperativo legal, presidiendo desde ese momento la sesión y quedando disuelta la Mesa de Edad.

A continuación el Sr. Gutiérrez dirigió unas palabras a los asistentes, dando en primer lugar las gracias a todas las personas presentes y al público en general; felicita a las electas, y en particular a las cuatro que entran nuevas en la Corporación. Agradece a quienes han hecho posible que EH Bildu gobierne. Expone que EH Bildu continuará como en la legislatura anterior buscando el consenso de todos los grupos y formaciones, así como la participación de la ciudadanía, intentando que el Ayuntamiento sea lo más cercano posible a la misma.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se da por finalizada la Sesión, siendo las 10:30 horas de todo lo que como Secretaria doy fe.

Idazkaria / La Secretaria,